

Noaia!!



Euskaraz egin daiteke
Errenta Aitorpena



Sara Del Rio, Greenpeace

“Errauste-planta berriak ere kutsagarriak dira”

EUSKAL HERRIKO KOLA

E.H. kola



0,75€



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

E.H. KOLA HEMEN SALGAI

Alkartasuna Elkartea Baserritar Kooperatiba
alkartasuna@usurbil.com • Ugarte Industrialdea 12
943 361 114

Udal liburategian
100 liburu
dizugu zain

ERAKURRI,
GOZATU
ETA
OPARITU

Informazio gehiago:
www.usurbil.com/argitaraketa

▶ www.noaia.com ◀
usurbildarron zerbitzura



Albisteak iruditan !!

1000 vs 353

Correosen bulegoa dagoen etxe Caspian, Artzabalen, edukion-tzietan... "1000 vs 353" margotuta agertu da herriko zenbait txokotan. Zenbaki horien esanahaia ezagutzea, azken egunetako misterioa izan da. Etxebizitza gaiarekin lotuta leudeke biak. 1000 zenbakiak herrian eraikitzeak diren etxebizitza kopuruari erreferentzia egingo lioke. 353 zifrak berriz, herrian hutsik dauden etxebizitzei.

Azalpen hori eman da noaua.com webguneko eztabaida-foroan.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

SARA DEL RIO, GREENPEACE-EKO KIDE _____ **8. OR.**

ERRENTA AITORPENAREN KANPAINA _____ **10. OR.**

"IRAKURRI ETA GOZATU" EKIMENA _____ **12. OR.**

NAFARTARRAK TALDEAREN ZIKLOA _____ **13. OR.**

HITZ-GEZIDUNAK, DENBORAPASAK _____ **14. OR.**

USURBIL CUP 2007 _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

Arduraz jokatu dezatela

Gaurkoan banuen beste gai batzuei buruz idazteko asmoa, baina larunbatean gertatu zirenak horiek aztertzeraz bultzatu naute. Izan ere Errausketaren Aurkako Koordinadorak, Urbil merkataritza zentroan antolatu zuen ekintza txiki bat; hainbat lagunek Urbileko Eroski supermerkatuan erosketak egin eta gero, kanpoko pasilloan elkartu eta behar ez ziren ontziak pila batean uzten joan ginen, atzean pankarta bat jarrita "Ontziak erosten ditugu, errauskailua saltzen digute" zioena. Jende multzoa inguratu zen ere ikustera. Eta nola ez, zaintza pribatuko kideak ere bertaratu ziren. Azaldu genien parodia didaktikoa zela, eta 5 minututan dena jaso (birziklatzera botatzeko, noski) eta alde egingo genuela. Baina beraiei bost axola, eta argi esan zigun Ertzaintzari deika ari zela. Eta bertaratu ere 3

patruila eta furgoneta bat, guztira 15 bat lagun, modu txarrean. Eta hasi ziren komeriak. Guztiak identifikatu (EHNA ez zitzaien balio noski), eta aparkalekura atera arazi gintuzten, azkenean ordu erdi eta gero karnetak itzultzeko. Zer gertatzen zen jakin nahian gazte batek galdetu, eta harengana jo zuten, lurrera bota eta atxilotuta eramateko. Ez dakit nor zen, baina hona nire elkartasuna berarekin.

Polizi bortizkeriaz gain, gaia da, zertara jokatu zuen Urbileko zuzendaritzak? 18 lagunek zabor kudeaketaren inguruan egindako parodia batek honako tratua behar al zuen? Oraindik ikusteko dago salaketa jarriko ote duten, hala izanez gero Urbileko zuzendaritzaren jarrera are larriagoa litzateke.

Baina ba al zenekiten Europako hainbat estatutan merkataritza guneetako poltsak ezin dutela plasti-



kozkoak izan? Bai ordea paper, arroza edo artoarekin egindakoak. Eta Alemaniako supermerkatuek saldu-takoen ontziak berriz hartzeko obligazioa dutela? Honek lortu duena da ontziratzearan gehiegizko ontziak saihestea, plastikoaren gainean kartoa eta hura plastikoa bilduta motatako ontziraketak desagertuz. Azkenik, arduraz jokatzeari eskatzen dut, Urbili salaketarik ez jartzeari, eta Eroskiri ontziraketaren murrizpena gaurtik hasia.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3 - 943 361 106

Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA

**943 365 095
609 068 111**

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

**Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679**

K. / Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Kalkos kopisteria

FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan

**BANDERA
SALMENTA**

PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 155 IFAXI kalkos@copisteriakalkos.com

Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

Iñaki Illarramendi izango da EAJ-PNVko alkategaia

Apirilaren 15ean, Usurbilgo EAJ-PNV batzarrean bildu zen eta Iñaki Illarramendi Etxabe aukeratu zuen zerrendaburu bezala datozen udal hauteskundeetarako. EAJ-PNVk lehengo astean egin zuen Usurbilgo alkategaiaren aurkezpena.

Iñaki Illarramendik 43 urte ditu, Txokoaldekoa da eta urte asko daromatza EAJ-PNV alderdian, barne lanetan. Azken bi urteotan, udaletxe-ko zinegotzia ere izan da. EAJ-PNVk igorri digun prentsa oharra dioenez, “herrigintzarako usurbildar guztien alde lan egiteko aurkeztu dugu Iñaki alkategai moduan”.



EZKERRETIK ESKUBIRA, MARKEL OLANO (DIPUTATU NAGUSIRAKO HAUTAGAIA), IÑAKI ILLARRAMENDI (ALKATETZARAKO HAUTAGAIA), JOSEBA EGIBAR (GBBK LEHENDAKARIA) ETA ANDONI ATXEGA (USURBILGO UBBKO LEHENDAKARIA).

Ika-mika !

OrmaetxEA, nahikoa da!

Lau urte kaka nahasten ibili ondoren, gure Alkate txit gorenak babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko deialdia ireki du. Azkenean! Hala ere ez da hori egiten duen lehenengo aldia. Iaz ere zozketan parte hartzeko “ezinbestekoa” omen zen eskaera orria betearazi zigen. Gero jakin dugu ezinbestean bete beharreko orri hori inkesta hutsa zela, zozketan parte hartzeko ez zuela inolako baliorik. Baina ez da hori okerrera; okerrera lau urteotan egindako adar jotzea da. Hasiera batean, etxebizitza babestuen zozketa 2005ean egingo zuela zabaldu zuen lau haizetara. Gero, 2006an egingo zela. 2006a iristen berriz, “ezinbestekoa” zen inkesta betearazi eta bi zozketa izango zirela jakinarazi zigen: lehenengoa 2006ko azken hiruhilekoan eta bigarrena 2007ko lehen sei hilabetetan. Ez bata

eta ez bestea.

Orain berriz, izena emateko deialdia ireki du. Kasualitatea, hauteskunde bezperetan. Gauzak ordea ez daude argi. Udaletxean informazio zehatzagoa eskatu ezkerre inork ez du gauza garbirik esaten. Etxebizitzak nolakoak dira, zenbat logelakoak, zenbat metrokoak? Erantzuna: ez dakigu, proiektua oraindik egin gabe dago. Ze prezio izango dute? Erantzuna: ezin dugu zehaztu, hori metroen arabera finkatzen da eta proiektua oraindik egin gabe dago. Lehen zozketa noiz egingo da? Erantzuna: ez dakigu, bi zozketa egingo diren ere zehazteko dago. Nola? Erantzuna: legeak ezartzen duenaren arabera, berez, etxebizitzak zozketatu aurretik ezinbestekoa da proiektua egina egotea eta Eusko Jaurlaritzak proiektu hau ontzat ematea eta etxebizitza bako-

tzaren prezioa finkatzea; eta oraingoz, proiektua egin gabe dago. Eta proiektua noiz egingo da? Ez dakigu.

Hau adar jotzea. Herritarrekin horrela jokatzek ez du izenik. Guztiak jasanezinezko kirats elektoralista du; nardagarria. Boto ziztrin batzuk lortzeko horrela ibili beharra ere. Gure Alkate txit gorenak izena emateko deialdia ireki du zozketa bihar bertan egingo balitz bezala. Errealitatea ordea bestelakoa da, etxebizitzaren proiektua egin gabe dago (zer egin du lau urtetan?) eta etxebizitzaren zozketa noiz egingo den inork ez daki (hiru hilabete barru, sei hilabetera, hurrengo urtean...). Hementxe gertatu da ba, gure aitak zioena: idiak baño lenago zintzarri eferosi. Eta auzokoari, idiak ukuiluan daudela sinestarazi.

Eduarne Biain Urkizu

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: maiatzak 4. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 30.

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

I. Sagardo Eguna Galizian



Apirilaren 14-an Lugo-ko "Concello de Chantada" herrian I. sagardo eguna ospatu zuten. Iaz Usurbilen izan ziren galiziar batzuk eta ideia gustatu eta beraiek ere sagardo eguna antolatzea pentsatu zuten.

Iazko sagardo egunean hemen izan zirenez, usurbildarrok sagardo egunera gonbidatu gintuzten eta 7 lagun apuntatu ziren eskurtsiora. Kotxetan atera ziren Usurbildik apirilaren 13-an.

Hara iritsi zirenerako zain omen zeukaten afaltzera eramango zituen autobusa. Nahikoa pulpo, haragi egosi eta gozo jan ondoren hotelera bueltan eraman omen zituzten.

Hurrengo egunean, apirilak 14 larunbata, hotelean gosaldutako eta plazara azaldu ziren. Guztira 16 sagardo postu omen zeuden. Postu horietatik bat bertako fabrika batekoa omen zen, Kantabriakoak eta asturiarrak beste batzuk eta hemengoak lau; Astiazaran, Saizar, Petrategi eta Añota. Bazkaldu eta afaldu sagardo egunaren antolatzaileekin egin omen zuten.

Gaua berriz ere hotelean pasatu eta hurrengo goizean, apirilak 15 igandea, hotelean gosaldutako eta honantz abiatu ziren. Oso gustura ibili omen ziren joandako guztiak eta hurrengo urtean galiziarrek sagardo eguna berriz antolatuz gero, ea jende gehiago animatzen garen!

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Ikasteko



Maiz ibiltzen naiz aldizkari honetan idazterakoan, gauzak gaizki egin direla edo hobe egin zitezkeela idatziz; agian, asmo onez eginak, baina ondo ez dagoela edo laster batean, berriz aldatu beharko dela esanez: Askatasuna plaza (Porlan plaza ez deitzeagatik), herri sarrerako babarrun formako errotonda, orain Kale

Nagusaren antolamendua, herritarrentzat izango ez diren etxe kopuru andana... badago zer konpondua nire gustorako.

Baina, nire ustez, badira bete-betean asmatu diren asmoak ere: esaterako, izen erreka duen arren, Sutegi kultura-etxea. Kultura herriaren mamian. Kultura kultura-etxetik urrun gabe egiteko parada zabalagoa eskaintzen duen frontoia, dema plaza, Porlan plazako (orain bai!) estalpea. Asmazio bikaina deritzot kultura-etxea berritu eta herritartzea.

Eta kultura-etxe honen erabilera! Ematen ari gatzazkio, behintzat! Horretarako dago gero! Baina zoriontzekoa ekitaldi horien guztien atzean dauden antolatzaile eta laguntzaile talde desberdin guztien lana eta borondatea.

Bide batez, aipatu, Nafartarrak kultur taldeak Udalarekin batera antolatu dituen hitzaldiak izango ditugula asteon eta zer erakutsi izango dutela guk zer ikasteko. Usurbil. Herria. Euskal Herria: independentziaren sustraiak.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Itxurak eta itxurakeriyak

Azkenaldian oso modan jartzen ari den joera batek erabat haserretzen ari nau, besteak-beste, moda hori sortzen ari den eta sortu ditzakeen ondorioengatik.

Badirudi egun denok modelikoak izan behar dugula eta hori horrela ez bada, arazoak ditugu. Baina lasai, hortxe dago kirurgia santuba arazo guztiak konpontzeko. Hori bai, norbait bere kabuz enteratu ez bada aukera hori existitzen denik, telebista arduratu da iragarki bidez edo programen bidez denoi helarazten ze aukerak ditugun eta gustora ez bagaude, zer nolako aldaketak egin ditzakegun geure buruarekin (bularrak handitu, saihetsak kendu, ezpainak loditu, ileak desagertarazi...). Eta gainera, gastu guztiak finantzatzen dituzte!

Entzun dut ere hainbat herrialdetan operazioak oparitzen direla; 18 urte egin dituzula bularren handitzea opari!

Noraino iritsi behar dugu? Zer ikasi behar dute gazte txoelek gauza hauek ikusita? Normaltasun osoz irentsi behar al ditugu moda berri hauek?

Nik ez dut itxura eta itxurakeriyaren morroi izan nahi eta zuek ere hortara gonbidatzen zaituztet. Garena garelako.



ATXEGALDE

MAJESUS URBIETA

Hilerriko tanatorioa

Esaerak dioen moduan, norberari tokatu arte ez gara jabetzen gauzaz nahiz eta denen begibistan egon. Niri ere horrelako zerbait gertatu zait. Aitona Manuel joan zaigu 97 urteko mundualdi baten ostean. Oroitzapen gozo bat luzatu nahi diot dagoen tokira tartetxo honetatik.

Egun hartan tanatorioan izan ginen eta esan beharra daukat oso ondo egokituta dagoela. Lekua eta bista ederrak ditu. Bertaratzen direnentzat ere berogailua, eserleku erosoak eta kafea edo tea hartzeko tresnak ere prest daude.

Gauzak txukun mantentzeko ordean jarraipena behar dutela eta kanpokaldeko ahulkiak pintura esku bat gurtu hartuko luketela ohartu nintzen. Ea ba txukun edukitzen jarraitzen duten.

Bestalde, auzoan begira jarri eta Santuenea aurrean dagoen zelaia eta Patxi Zapateroak erabili dituen baratze bikainak ikusi, eta hemendik ditugun bista ederrak ere denbora gutxirako ditugula konturatzen naiz. Adreiluz eta hormigoiz betetzeko ez dute ezer falta. Tamalgarria da horrelako aldaketak ikustea, baina etxeak behar omen dira.



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Argazki lehiaketa



Joan den larunbatean elkartaren lokalean hitzaldi oso praktikoa eta baliagarria entzuteko aukera izan genuen. Noemi Montrok eman zuen eta bertan egoera larrietan gaixo edo eta zaurituekin nola jokatu behar dugun ikasteko aukera izan genuen. Une larrietan denoi kostatzen zaigu erreakzionatzea eta behintzat zer egin edo ez den egin behar jakitea ondo etortzen zaigu denoi. Oraingoan ere emakumeak nagusi entzule bezala baina tira, ea denontzako baliagarriak diren eta hitzaldi hauetara jende ezberdina joatera animatzen den.

Bestalde elkarteko egoitzaren leihoak ere barrotez babes-teko zain daude. Azken bolada honetan norbaiti iruditu zaio puskatzeko edo erretzeko aproposak direla eta horretan pasatzen du denbora.

Bukatzeko ez ahaztu argazki lehiaketarako argazkiak entregatzeko epea hilaren 27a dela. Santuenea Kultur Elkartek antolatu du lehiaketa eta aurtengo gaia, "Udaberria". Nola hartu parte? Oso erraza da. Tamaina normaleko argazki bat egin, gutun batean sartu, gutunean argazkilariaren datuak idatzi eta ludotekan entregatu. Udaberriaz gozatu eta ondo segi.

AGINAGA

AITOR HELETA

Euskaltel Aginagan

Apirilaren 13an, Aginagan egindako Abatar batean bi gai jorratu ziren nagusiki. Alde batetik Euskalteko langile batek azaldu zigun zuntz optikoa ez duten lekuentzako, WIMAX sistemaren bidez Euskalteko duen Internetarako banda zabalaren eskaintza. Zaratuko Talai-Mendin kokatuta dagoen errepetidore batetik jasoko genuke seinalea. Horretarako antena txiki bat jarri beharko litzateke teilatuan edo fatxadan. Instalazioa doan izanik, kontratatzen den abiaduraren arabera hilero kuota bat ordaindu beharko da. Informazio gehiago telefono honetan: 943 31 86 01.

Bestalde, frontoi inguruan oinezkoen segurtasuna bermatu asmoz proposamen ezberdinak aztertu ziren. Azkenean, eta asko eztabaidatu eta gero, udalari honako hau luzatzea onartu zen:

10 km orduko abiadura mugatzen duten seinaleak jartzea, daukagun mini parke horren inguruan aparkamendua debekatzea eta, azkenik, plazako bi sarreretan pibote hidraulikoak jartzea. Hauek kotxea gelditu eta gero jaitsiko lirateke automatikoki. Bukatzeko galdera bat: Noizko parke duin bat Aginagan?



URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Maiatza



Nire ustetan, neguko eguraldiarekin animoak jaisten zaizkigun bezala, maiatza aldean denok askoz ere kontentuago ibiltzen gara. Goizean leihoa ireki eta eguzkia eta zeru urdina ikusteak asko alaitzen du eguna. Eta nonbait, hasi gara udaberri giroan murgiltzen: eguraldi ona hasi da, eguna asko luzatu da,...

Baina honetaz gain, maiatzak badu beste zerbait. Igandero badugu festaren bat hilabete honetan. Lehenik eta behin, lehen eguna jai eguna izan ohi dugu eta zortea dugunok zubi eta guzti sartuko gara maiatzara. Ezin ahaztu Andatza eguna ezta ikastolen aldeko festak ere: Herri Urrats Ibilaldia,... Aipatu gabe ezin utzi, nola ez, Sagardo Eguna. Eta honez gain, beti izaten da familian jaunartzeren bat, edo ezkontzaren bat,... Hilabete betea benetan!

Bukatzeko, auzoko jendea animatu nahi nuke NOAUA!ko txoko honetan idaztera. Aire berriak behar ditu txoko honek! Idazten ausartuko ez bazinate ere, lasai jo guregana, jakin duzuen berriren bat esateko, edo protestaren bat egiteko,... Guri oso ondo etorriko litzaizkiguke zuen hitz horiek txoko hau bete ahal izateko.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Badatorkigu festa

Erraustegi, kartzela eta gure herria udalerrri ez izateak dakartzkigun bestelako kontu beltzak albo batera utzi eta ekainaren 10ean Gipuzkoako Eskola Txikien Festa egingo dugu Zubietako kaxkoan.

Eskola txikiak mantendu eta indartu beharra aldarrikatzeko egiten dira urtero Eskola Txikien Festak eta Zubietak lehen aldiz antolatuko du aurten festa hori.

Egitarrua jada prest dago: umeentzako jokoak, herriko dantza, omenaldiak, bazkaria, pottokak, Patxi Perezekin dantza saio mundiala, Pirritx eta Porrotx pailazoak, pilota partidak...

Egitarru oparo hori antolatzeaz gain bestelako lanik ere egin dute eskola txikiko gurasoek: diru-laguntzak lortu, festa girotzeko logotipoa, liburua eta abestia (Mal de Ojoren musika eta Xabier Arregiren hitzekin egindakoa) sortu, festarako webgunea egin (www.blogak.com/zubieta2007), neguko eta udako arropa atera (eskola txikian dituzue ikusgai, jo Nekane Zalduarengana)...

Gurasoek aurrerantzean herritar denon laguntza beharko dute, batez ere egunean bertan lan egiteko. Badakizue nora jo. Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik!



Sara Del Rio, Greenpeace

“Ez dira zaborrak gutxitzeko politika errealak bultzatzen”

Hiri hondakinen eztabaida piztu zenetik hona, instituzio ezberdinen iritziak eta proposamenak bildu ditugu. Herri plataforma eta giza mugimenduen ahotsa jaso dugu. Baina honakoan, Greenpeace erakundearengana jotzea erabaki dugu. Urteak pasa ahala, nazioartean zeresan handia eta eragin zuzena duen talde ekologistan bilakatu da. Sara Del Rio, Greenpeace taldeko gure solaskideak, toxikoen inguruko kanpainak koordinatzen ditu. Madrilgo egoitzatik atenuatu zuen NOAUA!ren telefono deia.

NOAUA! Errauste-planta eraiki nahi dute Zubietan. Nola ikusi duzue hemen sortu den ika-mika Madrildik?

Sara Del Rio. Oso argi geratu da erraustearen aurka dagoela gizartea. Arrazoi argiengatik gainera. Zaborren erretzeak sustantzia arriskutsuak eragiten ditu. Errauts hegalarri asko sortzen ditu, eta baita lurreko errauts asko ere. Errauts horiek hondakin arriskutsu diren aldeak, zabortegien premia izango dute errauste-plantei, beraz, errauste plantak ez luke zabortegiekiko dugun dependentsiarekin amaituko. Herritarrek errauste-planten aurka azaldu dira baina instituzioek ez dute herritarren iritzia aintzat hartu. Hiri hondakinen arazoa ez dute beste era batean konpontzen jakin eta errazenera jo dute; herritarrek onartuko luketen konponbidea bilatzeari uko eginez.

N. Argi dago, beraz, gai honetan Greenpeace taldearen jarrera zein den.



SARA DEL RIO GREENPEACE TALDE EKOLOGISTAKO BURUETAKO BAT DA ETA TOXIKOEN KANPAINATAZ ARDURATZEN DA.

SARA DEL RIO

“Begietatik kenduko dute zaborra, baina ez da zaborren kopurua murriztuko eta arazoa areagotu egingo da”

S. D. R. Erraustea jasangaitza den teknologia baita. Konpondu ez den arazo bat estaltzera datorrena: gero eta zabor gehiago sortzen da baina ez dira zaborrak gutxitzeko politika errealak bultzatzen. Zaborrekin sortu den arazoa errauts bihurtu nahi dute. Begietatik kenduko dituzte zaborrak, baina ez da zaborren

kopurua murriztuko eta arazoa areagotu egingo da. Errauste-plantei bidez sustantzia oso arriskutsuak zabalduko dira, gainera. Ez bakarrik hain aipatuak diren dioxinak edo furanoak, baita bestelako sustantzia arriskutsu gehiago ere. Nazioarteko hitzarmen askok dioxinak, furanoak eta beste sustantzia horiek gutxitu egin behar direla diote. Baina Donostiako udalak eta Foru Aldundiak, ordea, teknologia horren alde egin dute. Sustantzia arriskutsu horiek guztiak zabaltzen dituen teknologiaren alde. Sentsibilizazio eta prebentzio politikak bultzatu beharko lituzkete baina erraustearen alde egin dute, herritarren gehien-goia kontra azaldu den arren.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

 pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

N. Berrerabili, gutxitu eta birziklatu. Hori da talde ekologisten lema nagusia. Baina beti izango da birziklaezina den materiala. Kasu horretan, zein izango litzateke konponbidea?

S. D. R. Bada "0 Hondakin" izeneko korrontea, Europan eta Europatik kanpo zabaltzen ari dena. Produkzio sisteman, bakarrik birziklagarria den materiala erabiltzeko joera bultzatzen duena. Noski, korronte honek egungo kontsumo-sistema aldatzea dakar. Gaur egungo arazoa ez da bakarrik sortzen dugun zabor kopurua. Zaborraren materiala da gaur egungo arazoa.

SARA DEL RIO

"Errauste-planta ezartzen bada, hondakinak murrizteko politikak lehentasun gutxiago izango du"

Adibidez, PVCz eginiko ontziak ditugu oraindik. Gaizki birziklatzen den ontzia da eta zabortegira eramaten den bakoitzean sustantzia arriskutsu ugari askatzen ditu. Eta errauste-plantara eramaten denean, PVCz eginiko ontzi hori dioxina, furano eta sustantzia arriskutsu ugari eragiten ditu.

Birziklagarriak diren materialak erabiltzen hasi behar da. Baina zabortegi edo errauste-planta baten menpe bagaude, zaborrarekin sortu den arazoaren konponbidea ez da sekula iritsiko.

N. Errauste-planta jarriko balitz, birziklatzeko motibazioa jaitsi egingo litzateke. Hori diote herri-plataformek. Hala al da? Horren inguruko daturik ba al duzue?

S. D. R. Gauza jakina da hori. Hori beste toki batzuetan ikusi da. Europako Batasuna horregatik ari da errauste-planten teknologia arbuizatzen. Baina Europako Batasunak egiten dituen proposamenak albo batean utzi dituzte Gipuzkoako instituzioek. Hondakin politikan zehaztu den hierarkiaren lehen urratsak albo batera utzi nahi dituzte: zaborren birziklatzea, gutxitzea, berrera-biltzea. Errauste-planta ezartzen bada, hondakinak murrizteko edozein politikak lehentasun gutxiago izango du.

"Ingurugiroa kutsatzen jarraitzen dute teknologia berriko errauste-plantak"

NOAUA! Instituzioek errepikatzen dutenez, teknologia berriek esker gaur egungo errauste-plantak seguruagoak dira.

Sara Del Rio. Espainian, errauste sistema alboratuta egon da denbora luzez. Azken urteotan, ordea, ikusi dugu erraustearen inguruko sektoreak teknologia berriak bultzatu dituela. Baina ingurugiroa kutsatzen jarraitzen dute teknologia hauek, pertsonen osasuna arriskuan jarraitzen du oraindik.

Europan, ingurugiroari buruzko legediak muga zehatzak jarri ditu, bereziki, atmosferara eginiko emisioen aurrean. Eta espreski, dioxina eta furanoen kasuan. Baina errauste-plantak, dioxina eta furanoez aparte, oso arriskutsuak diren beste sustantzia batzuk ere eragiten dituzte. Teknologia berriekin, tximiniatik beharrean erraustzen bidez liberatzen dira sustantzia arriskutsu horiek. Orainsu, neurketak egin dira errauste-planta batzuetan eta dio-



DIOXINAK, FURANOAK ETA BESTE SUSTANTZIA ARRISKUTSU GEHIAGO SORTZEN DITU ERRAUSTE SISTEMAK.

xina eta furanoen %95 erraustutako hondakin solidoetan aurkitzen dira. Hondakin hauek oso arriskutsuak direnez, zabortegi berezi batzuetara eraman behar dira. Azken finean, teknologia berriekin egin dutena zera da: sustantzia kutsagarriak tximiniatik bideratu beharrean, erraustutako solidoen bidez liberatu dituzte. Baina kutsadura berdina da, ingurugiroan eta osasunean eragin berdina dute.

Irailetik aurrera hondakin organikoak biltzen hasiko dira

Hondakin prebentzioaren inguruko nazioarteko konferentzia ospatu zen lehengo astean Donostiako Miramar jauregian. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak antolatu zuen konferentzia, Baliabideen Birziklatzearen eta Kudeaketa Iraunkorraren Aldeko Hiri eta Eskualdeen Elkartarekin batera. Konferentzia hau adituei, toki-ko arduradunei, GKEei eta hiri-hondakin areagotzea gelditu nahi duten heziketa-sektore zein enpresa-sektoreei zuzenduta zegoen.

Bilkura honetan, hiri-hondakinak prebenitzearen inguruan eztabaidatu zen. Hala nola, etxeetako ohiturak aldatzeko erabilgarriak izan daitezkeen tresnak aztertu ziren.

Honen harira, aipatzekoa da Foru Aldundiak irailerako martxan jarri nahi duen edukiontzi berria. Hondakin



EDUKIONTZIAREN GOIKALDEKO TAPA TXURITIK BOTA BEHARKO DIRA HONDAKIN ORGANIKOAK.

organikoak jasoko ditu edukiontzi honek, janari gordinak alegia. Lehen fasean, Zarautz, Zumaia, Azpeitia, Azkoitia, Aretxabaleta eta Amaran (Donostia) hasiko dira janari gordinak era berezitan jasotzen. 2016rako, hondakin organikoaren %55a birziklatzea aurreikusi du Foru Aldundiak. Birziklatzen den hondakin organikoarekin konposta egingo da.



Gure poltsikoei errentagarritasuna ateratzen

Buruntzaldeko Euskarako zerbitzuek kanpaina berria jarri dute martxan diru-kontuekin lotutako gestioak euskaraz egiteko beldurra uxatzeko helburuarekin. Kanpainak dioen bezala errentagarritasuna %100ekoa da eta arriskua

%0. Diru-kontuen inguruko gestioak euskaraz egiteko aukera ere badela ohartarazi nahi digute herritarroi, gure poltsikoen errentagarritasuna berdina baita euskaraz zein gaztelaniaz.

ERRENTA AITORPENEA

Ailegatu da Ogasunarekin kontuak argitzeko garaia. Hona hemen modalitateak, egutegia eta aurkezteko tokiak.

MODALITATEAK

Autolikidazio proposamena: Foru Ogasunak bidalita zergadun batzuek postaz bi hizkuntzetan jasoko dute. Jasotakoa onartuz gero, 902 100 040 zenbakira deituta edota www.gipuzkoa.net atarian jakinarazi behar da. Onartzen ez bada, aitorpena egiteko beste modalitatearen bat baliatu beharko da. Gomen-dagarriena, mekanizatua.

Mekanizatua: Foru Ogasuneko bulegoetan egiten da, aldezturik hitzordua eskatuta. Usurbildarrek Donostian, Antxo Jakitunaren hiribidean, 9.

Telematikoa: gure diru-mugimenduen frogagiriak erakutsita, finantza erakunde eta artekaritzetako langileak egiten dute aitorpena.

Nork bere bidetik eginda: norberak inprimakia edo CD bat erosita; baita Internet bidez ere. Estankoetan, Ogasuneko bulegoetan eta Interneten euskarriak eskuragarri. Erabilienak; 109 eredu (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) eta 714 (Ondarearen gaineko Zerga). Aurkezpenarako aukeratu den tokian entregatu behar da aitorpena, diru-mugimenduen frogagiriak erantsita.

ERRENTAREN AITORPENAREN 2007KO EGUTEGIA

Auto-likidazio proposamena: maiatzaren 11 arte.

Nork bere aldetik: Ekainak 25 arte.

Mekanizatua: Ekainak 28 arte (hitzordurako erreserba ekainak 18 arte).

Txanda hartzeko eta informaziorako telefonoa: 902 100 040.

Datuek erakusten dutenez, herritar gehienek Errentaren Aitorpena gaztelaniaz egiten dute. Argi dago euskaldunok nahiago dugula diru-kontuak gaztelaniaz argitzea. Kutxako gestore komertziala den Amaia Fernandezek adierazi digun bezala, "kontzeptu teknikoetan dago hutsunea. Horrelakoetan, bezeroei erdaraz aritzeak konfiantza handiagoa ematen die". Errenta-aitorpenaren simulazioak bi hizkuntzetan egiteko aukera eskaintzen du; gehienek, ordea, erdaraz egiten dute.

EUSKARAZ EGITEKO BORONDATEA AZALDU

Buruntzaldeko udalek sustatu duten "Diru-Kontuak euskaraz" izeneko kanpaina, hutsune horiek betetzen laguntzeko asmoarekin sortu da. Errentaren Aitorpena zein gestoretan egiten diren gainerako tramiteak direla eta sor daitzekoen zailtasunak gainditzeko eta beldurrak uxatzen laguntzeko, alegia. Horretarako, hainbat baliabide berri jarri



APIRILAREN 17AN EGIN ZEN KANPAINAREN AURKEZPENEA ANDOAINGO UDALETXEAN.

da gestigile zein herritarren eskuetan.

Baina baliabideak baliabide, zera gomendatzen da, herritarrek espresuki adierazi dezatela euskaraz egiteko borondatea, eta horretarako dauzkan eskubideak argi izatea eta erabiltzea. "Errentaren aitorpena euskaraz egiteko ahalegina egiten ari gara. Baina ahalegin horrek ez du zentzurik herritarrek aukera hori ez badute baliatzen", adierazi du Normalizazio Planetako Foru Aldundiko arduraduna den Joxean Amundarainek.

Errenta aitorpena euskaraz

NON	ZENBAT
Andoain	348
Astigarraga	98
Hernani	511
Lasarte-Oria	317
Urnieta	147
Usurbil	269

Gestoretan ere, dokumentazioa euskaraz

Errentaren Aitorpena euskaraz egiteko eskaria, poliki bada ere, gehitzen ari den bezala, gestoriekiko gainerako harremanetan ere, aholkoetan zein idatzietan, gauza bera ari da gertatzen.

Alor horretako profesionalentzat ere ez da erraza izaten tramite guztiak euskaraz egitea, ohitura faltaz aparte, askotan ez dute lako dokumentuen eredu ofizialik. Hutsune horretan laguntzera dator kanpaina honen bidez gestoria parte hartzaileen arte-

an banatu den CDa. Bertan, dokumentu erabilien euskarazko hainbat eredu, dokumentu ofizialak euskaraz aurkitzeko erreferentziak, gaiarekin loturiko hiztegi espezifikoak edota bibliografia aurkitu ditzakete.

Ezin hobeto hartu dute laguntza lanean ari diren gestigileek. Sektorea euskalduntzeko aurrerapauso hori baliagarria izango da egun dauden hainbat oztopori aurre egiteko. Usurbilgo Lurdes gestoriako Lurdes Furundarenaren esanetan, "egoera aldatzeko tarte hartu beharra dago. Euskara arlo

guztietan bultzatuta ere, denbora behar da". Halaxe da bai. Baina beste zerbait ere bada, tartean ezinbestekoa; jarrera aldaketa. Bai gestigileena, bai eskaria sortu behar duen herritarrarena.

Buruntzaldeko udalek sustatu duten kanpaina honi esker, gestoretako artekariek hainbat euskarri izango dituzte eskura.

Gestoretako arduradunekiko ahozko harremanetan, zein Errentaren Aitorpena edo bestelako dokumentuak egitean ere euskaraz erabiltzera animatzeko herritarrek ere esku-orriak jasoko dituzte.



diru-kontuak euskaraz*

ondarea gehitu nahi? esan euskarari bai!

***errentagarritasuna %100
arriskua %0**



Auzoainko gestoria parte-hartzaileak

ALDAMA TAPIA	Txitibar plaza 3	☎ 943 300 167
ARANBURU	Kaleberria 6	☎ 943 590 814
GABILONDO	Kaleberria 1	☎ 943 303 025
ZALAKAIN	J. Bautista Erra 6	☎ 943 590 006

Urbietako gestoria parte-hartzaileak

BEGIRISTAIN	San Juan 17	☎ 943 556 121
BURUNTZA	Zelai Alde 4	☎ 943 008 128
ECODESI	Geltoki 1	☎ 943 008 074
RAFAEL BARKAIZTEGI	San Juan 17	☎ 943 556 121

Herritarrenko gestoria parte-hartzaileak

BRINTZA	Urbieta 15	☎ 943 331 267
HATOR S. COOP.	Kardaberaz 60	☎ 943 554 312
GSE	Kardaberaz 40	☎ 943 550 254
ZARAUZ	Elkano 9	☎ 943 556 006
ZULAICA	Kardaberaz 68	☎ 943 551 494

Urbirailgo gestoria parte-hartzaileak

LURDES	Etxebeste 9	☎ 943 366 056
--------	-------------	---------------

Lanarte-Orriko gestoria parte-hartzaileak

ARTEA	Uzturre plaza 8	☎ 943 360 148
ASKI	Kale Nagusia 1	☎ 943 371 512
BETELU	Aralar plaza 6	☎ 943 364 886

